

2024KO UZTAILEAN, ZAINZARAKO BEGIRALEAK ALDI BATERAKO HARTZEKO OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua da Legazpiko Udaleko Euskara Sailak 2024ko uztaileko antolatu duen “*Uztala*” udaleku irekietan eskainiko duen “zaintza hezitzailea” zerbitzurako begiraleen aldi baterako kontratazioa arautzea.

Kontratuaren iraupena ekainaren 28tik uztailaren 24ra arte (hau barne) izango da eta lanaldia Udalak ezarriko du aipatutako programari aurre egiteko beharrak kontuan hartuta.

Ordainsaria: Legazpiko Udaleko ordainsarien taularen 5. maila.

Erreserbako zerrenda baten parte izatera pasatuko dira kontratatu behar direnak baino lagun gehiago badira. Kontratazioak egiterakoan, uko edo baja egoera baten aurrean erabiliko da zerrenda hori.

2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

1. 18 urte beteta izatea, izena emateko epea bukatzen denerako.
2. Euskaraz ongi ulertu eta hitz egitea.
3. Beharrezko tituluak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketako erdi mailako titulua edo baliokideak.
4. Funtzioak behar bezala betetzeko eragozpenik ez izatea, gaixotasun edo muga fisikoen ondorioz.
5. Inolako Administrazio Publikoren edo Autonomia Erkidegoetako konstituzio- nahiz estatutu-organoen zerbitzutik diziplina-espeditente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
6. Sexu-izaerako delituengatik aurrekari penalik ez izatea.
7. Kontratazio hau ez da bateragarria izango beste lan kontratu edo funtzionario izendapen batekin.

3. Eskabideak aurkeztea.

Epea: martxoaren 25etik apirilaren 12ra, biak barne.

Lekua: Legazpiko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ). Orduetgia: 8:00etatik 15:00etara. Telematikoki egoitza elektronikoan: <https://egoitza.legazpi.eus/>

Halaber, eskaerak posta-administrazioetan aurkezteko aukera izango da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan araututakoari jarraiki. Horrela egiten bada, eskaerak Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio kartazal ireki batean, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Dokumentuak posta-bulegoan aurkeztutako eguna Erregistro Orokorreko sarrera-data gisa hartuko da baldin eta baldintzak betetzen badira.

4. Aurkeztu beharreko agiriak.

Interesdunak ekarri beharrekoak:

- Eskaera orria beteta (www.legazpi.eus Web gunean zein Legazpiko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskuragarri).
- Puntuagarriak diren titulazioen fotokopiak.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatuko dituen beste edozein agiriren kopiak.

Udalak berak zuzenean egiaztatuko dituenak, interesdunak aurka egiten ez badu:

- Euskara mailaren ziurtagiria.
- Sexu-izaerako delituengatik aurrekari penalik ez izanaren ziurtagiria
- Lan-ibilbidearen agiria.
- Ikasketak

Ohar garrantzitsuak:

- Baloragarriak diren merezimenduak lan-eskaera orriarekin batera doan eranskinean zerrendatuko dira.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak erantsi beharko dira, Udalak bere esku ez dituen kasuetan.
- Ez da zerrendan aipatutako baina agiriarekin egiaztatuko ez den merezimendurik baloratuko.

Lan-esperientzia ziurtatzeko kontratuaren fotokopia edo erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

5. Kalifikazio-epaimahaia.

Epaimahaia osatu eta apirilaren bigarren hamabostaldian bilduko da aurkeztutako merezimenduak baloratzeko.

6. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da Legazpiko Udalaren web orrian (www.legazpi.eus).

Baztertuak izan direnek bost egun balioduneko epea izango dute, zerrenda web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, baztertuta geratzea eragin duten akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da, baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada.

7. Hautaketa-prozesua.

Ondorengo irizpideei ezarriko zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzaren puntuazioa aterako da eta horren arabera lortuko da kontrataziorako erabiliko den hurrenkera. Puntuagarri den guztia egiaztatu egin beharko da puntuatua izan dadin.

*** Titulazioa:**

- Aisialdiko zuzendari titulua:

- ✓ Euskal Erkidegoan eskuratutakoa bada: 6 puntu
- ✓ Beste Aisialdiko zuzendari titulua: 4 puntu.

- Aisialdiko begirale titulua:

- ✓ Euskal Erkidegoan eskuratutakoa bada: 3 puntu
- ✓ Beste Aisialdiko begirale titulua: 1,5 puntu.

*** Euskara:**

- C1 maila: 3 puntu.

*** Ikasketak:**

- Haur Hezkuntzako Gradua: 2 puntu
- Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa: 2 puntu
- Lehen Hezkuntzako Gradua: puntu 1,5
- Gizarte Hezkuntzako Gradua: puntu 1,5
- Gizarte integrazioa goi-mailako zikloa: puntu 1
- Gizarte eta kultur animazioa: puntu 1

* Prestakuntza-ikastaroak: jolasa, aisialdia eta abarrekin erlazionatutako ikastaroak: gutxienez 10 orduko ikastaro bakoitzeko 0,5 puntu (ez dira 10 orduetik beherako ikastaroak kontuan hartuko). Gehienez 2 puntu.

*** Lan-esperientzia (gehienez 6 puntu):**

- Udaleku itxietan begirale lanetan: 7-11 egun bitartean, 0,40 puntu eta 12-15 egun bitartean, 0,80 puntu.
- Udaleku irekietan begirale lanetan: 15 eguneko, 0,5 puntu (ez dira 15 egun baino gutxiagokoak kontuan hartuko)

- Begirale gisa egindako bestelako lanak: 0,25 puntu urteko (gehienez ere 0,75 puntu)

Oharrak:

- Ez dira kontratu desberdinetako egunak pilatuko eta ez dira egun horiek baino gutxiagoko kontratuak kontuan hartuko.
- Legazpiko udalekuetako esperientzia egiaztatzeke ez da agiririk aurkeztuko, Udalak berak egiaztatuko du ofizioz.

* Herritartasuna:

- Legazpiarra izatea eta bertan bizitzea: 5 puntu.

* Langabezia: aintzat hartuko da azken urtean (2023ko ekainaren 1etik izena emateko epea hasi arte) lanik gabe egindako denbora:

- lanean 60 egun baino gutxiago eman dutenek 3 puntu jasoko dituzte.
- lanean 61 egun baino gehiago eta 120 egun baino gutxiago eman dutenek 2 puntu jasoko dituzte.
- lanean 121 egun baino gehiago eta 180 egun baino gutxiago eman dutenek puntu 1 jasoko dute.

8. Izangaien zerrenda.

Izangai bakoitzaren azken puntuazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuen batura izango da.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1. Herritartasuna: Legazpikoa izatea lehenetsiko da.
2. Ikasketak: gizarte arlokoak eta maila gorenekoak lehenetsiko dira.
3. Langabezia: langabe denbora gehien egon dena lehenetsiko da.
4. Begirale titulua: euskaraz egin izana lehenetsiko da.
5. Begirale titulua: lehenago eskuratu izana lehenetsiko da.

Eta irizpide horiek aintzat hartu eta gero, hala ere, berdinketak jarraituko balu, Epaimahaiak zozketa egingo luke.

Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahaiak lortutako puntuazioaren ordenaren araberrako zerrenda argitaratuko du Legazpiko Udaleko web orrian, eta onarpen proposamena igorriko dio organo eskudunari.

9. Begiraleen betebeharrak.

- Euskara da begiraleen lan eta zerbitzu hizkuntza.
- Begiraleek prestakuntza-ikastaro bat egin beharko dute **ezinbestean**. Ikastaroaren eguna: ekainaren 22a, larunbata.
- Laneko era guztietako hutsegiteak 48 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio Udalari eta ondoren, dagokion hutsegitea zuritzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da. Arrazoitu gabeko lan hutsegiteak falta oso larriak izango dira eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege-dekretuaren 96.b artikuluan esaten denaren arabera jokatu da. Hau da, langilea kaleratua izan ahalko da eta aurrerantzean berriro kontratatzeko desgaitua gelditu liteke.
- Haur-taldeak banatzerakoan, zerbitzuen beharrak, izangaiaren ezaugarriak eta lortutako puntuazioa hartuko dira kontuan eta hiru aldagai horien arabera esleitu da taldeak.
- Lanaldia: 9:00etatik 13:00etara.